

**IGOGAILUEN JABEAK**

**Gaia: 1999-07-01a baino lehen jarritako igogailuetan egin beharreko hobekuntzak**

Urtarrilaren 21eko 57/2005 ERREGE DEKRETUAREN (2005-02-04ko BOE) bitartez, igogailuen parkearen segurtasuna areagotzeko aginduak ezartzen dira. Dekretu hori argitaratu zenetik, igogailuen jabeek hainbat elementu jarri behar dituzte nahitaez, segurtasuneko gutxieneko maila uniformearekin lortzeko.

Batik bat, 1992. urtea baino lehen jarritako igogailuei eragiten die xedapen horrek, baina 1999-07-01a baino lehen jarritakoek ere baldintzaren bat bete behar dute.

Urteak joan ahala, gero eta baldintza tekniko eta segurtasun-baldintza gehiago eskatu dira igogailuetan, eta eskakizun horien ondorioz, instalazio zaharrenen gutxieneko segurtasuna ere areagotu behar da.

Egokitzapenak egiteko epea honako hau da: urtebete, baimendutako Kontrolerako Erakunderen batek igogailuaren nahitaezko aldizkako ikuskapena egiten duenetik hasita, betiere datorren abuztuaren 4tik aurrera. Kabinako pegatina horian agertzen da noiz egin den azkeneko ikuskapena, baita hurrengo noiz egin behar den ere.

Egokitzapenak egiteko epe ofiziala dena delakoa izanik, lehenbailehen egiteko aholkatzen du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, instalazioetako segurtasuna areagotzeko begira.

Goian aipatu den Errege Dekretuan adierazten diren segurtasun-neurri berrietako zenbait jadanik ezarri dira gure Autonomia Erkidegoan. Honako hauek dira hartu beharreko neurri berriak (dagoeneko ezarriak ez badaude):

**- 1992. urtea baino lehen jarritako igogailuen kasuan (1996ko Araudiarekin eta aurrekoekin):**


| Hartu beharreko neurri berriak   | Oharrak  |
|--|--|
| 1 Mantentze-lanetako langileek erabiltzeko, zuloan honako hauek jartzea: gelditzeko etengailua, zuloa argitzeko argi-etengailua eta korrante-hartunea.   | Zati batean ezarria. Zuloa argitzeko argi-etengailua berria da; gainerakoak, oro har, zati batean ezarriak daude.  |
| 2 Kabinaren atalase azpiko hegala aldatzea, ahal den altuena eginez, betiere zuloaren sakonerarekin bateragarri izanik, gehienez ere 75 cm-raino.  | Hegal berri luzeagoa jartzea.  |
| 3 Kabinetan atek jartzea, baita kabina non dagoen adierazten duen gailua ere, barrutik ikusteko moduan.  | EAEn ezarria dago.   |
| 4 Kabinan argiak eta larrialdiko alarma jartzea.   | EAEn ezarria dago.   |
| 5 Esekiduren inbertsio-poleari, desbideratze-poleari, konpentsazio-poleari eta makinaren poleari babesgarriak jartzea.   | EAEn ezarria dago, zati batean. Poleak ez harrapatzeko babesgarriak. Erraz desmuntatzeko modukoak izan behar dute. |
| 6 Kable mugatzailea laxatzeko segurtasun-kontaktua jartzea.  | Ez daukatenezat soilik.  |
| 7 Gelditzeko gailu bat jartzea, igogailua abiatzen ez den kasuetarako edo kableek irrist egiten duten kasuetarako.   | Motorra abiaraztean tenporizadorea jartzea (ez baldin badu).   |
| 8 Makina-gelatik erraz kontrolatzeko aukera ahalbidetzea, kabina geldiguneetan ez dagoenean.   | Gutxienez, kableak markatzea.  |
| 9 Sare batek zuzenean elikatzen dituen motoreen kasuan, bi kontaktore independentek eten behar dute energia-etorria.   | EAEn ezarria dago.   |
| 10 Eguneroko aldi baterako okupazioa (eraikin publikoak edo bulego-erakinak) edo urtaroko okupazioa duten eraikinetan, edo okupazio txikiko etxeetan, berehalako esku-hartze zerbitzu batekin etengabeko komunikazioa ahalbidetzen duen noranzko biko komunikazio-sistema bat jartzea kabinan. | Kabinan telefono-sistema. Okupazio txikikotzat jotzen da 5 etxebizitza baino gutxiagoko eraikuntza.                |
| 11 Kabinaren sabaian baranda bat jartzea, sabaiaren ertzaren eta zuloaren hormaren arteko tartea 30 cm baino handiagoa denean.   | EAEn ezarria dago. 30 eta 35 cm artean daudenak soilik geratzen dira.  |

**- 1992. urtearen eta 1999-07-01aren artean jarritako igogailuen kasuan (ITC AEM-1 badutenak):**

| Hartu beharreko neurri berriak   | Oharrak   |
|--|---|
| 10 Eguneroko aldi baterako okupazioa (eraikin publikoak edo bulego-erakinak) edo urtaroko okupazioa duten eraikinetan, edo okupazio txikiko etxeetan, berehalako esku-hartze zerbitzu batekin etengabeko komunikazioa ahalbidetzen duen noranzko biko komunikazio-sistema bat jartzea kabinan. | Kabinan telefono-sistema. (Oro har, okupazio txikikotzat jotzen da 5 etxebizitza baino gutxiagoko eraikuntza) |
| 11 Kabinaren sabaian baranda bat jartzea, sabaiaren ertzaren eta zuloaren hormaren arteko tartea 30 cm baino handiagoa denean.   | EAEn ezarria dago. 30 eta 35 cm artean daudenak soilik geratzen dira.   |

  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 INDUSTRIA, MERKATARITZA  
 ETA TURISMO SAILA  
 DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
 COMERCIO Y TURISMO

Vitoria/Gasteiz, 2005eko uztailaren 7(a)



Sin.: Ruben Mendiola Erkoreka  
 INDUSTRIA ETA MEATEGIAK ADMINISTRATZEKO ZUZENDARIA

**PROPIETARIOS DE ASCENSORES**

**Asunto: Mejoras a realizar en los ascensores instalados antes del 1-7-1999**

La publicación del **REAL DECRETO 57/2005, de 21 de enero (B.O.E. 4-2-2005)**, por el que se establecen prescripciones para el incremento de la seguridad del parque de ascensores existente, obliga a los propietarios de los ascensores a instalar una serie de elementos para conseguir un nivel mínimo y uniforme de seguridad.

Esta disposición afecta principalmente a los ascensores instalados con anterioridad a 1992, aunque hay algún requisito para los anteriores al 1-7-1999.

Las condiciones técnicas y de seguridad que han venido requiriéndose a los ascensores han ido incrementándose a lo largo del tiempo, lo cual ha tenido como consecuencia la necesidad de incrementar también la seguridad mínima de las instalaciones más antiguas.

El plazo concedido para realizar estas adaptaciones es de un año desde el momento en que un Organismo de control autorizado realice la correspondiente inspección periódica reglamentaria del ascensor, a partir del 4 de agosto próximo. En la pegatina amarilla de la cabina se indica la fecha de la última inspección y cuando le toca realizar la próxima.

Independientemente del plazo oficial concedido para realizar las adaptaciones, éste Departamento de Industria, Comercio y Turismo recomienda que se realicen a la mayor brevedad ya que ello redundará en un aumento de la seguridad de las instalaciones.

De entre las nuevas medidas de seguridad que se indican en el citado Real Decreto, algunas ya han sido implantadas en nuestra Comunidad Autónoma. Las nuevas medidas a adoptar, si no las tuviera implantadas, son las siguientes:

**- Para ascensores instalados antes de 1992 (con el Reglamento de 1966 y anteriores):**

| Nuevas medidas a adoptar  | Observaciones  |
|---|--|
| 1 Instalar en el foso un interruptor de parada, un interruptor de iluminación del hueco y una toma de corriente, para uso del personal de mantenimiento.  | Parcialmente implantado. El interruptor de iluminación del hueco es nuevo, el resto ya está en general parcialmente implantado.                    |
| 2 Modificar el faldón bajo el umbral de la cabina, haciéndolo de la mayor altura posible, compatible con la profundidad del foso, hasta un máximo de 75 cm.   | Instalar nuevo faldón de mayor longitud.   |
| 3 Dotar de puertas a las cabinas, junto con un indicador posicional de la cabina, visible desde su interior   | Se encuentra ya implantado en la C.A.P.V.  |
| 4 Instalar en la cabina iluminación y alarma de emergencia.   | Se encuentra ya implantado en la C.A.P.V.  |
| 5 Dotar de protección a las poleas de reenvío de suspensión, de desvío, de compensación y de máquinas.  | Se encuentra ya parcialmente implantado en la C.A.P.V.<br>Protecciones contra posible atrapamiento de poleas. Deberán ser fácilmente desmontables. |
| 6 Instalar contacto de seguridad de aflojamiento de cable limitador.  | Solo en los que no dispongan de ello.  |
| 7 Dotar de un dispositivo de parada que actúe cuando el ascensor no arranque o patinen los cables.  | Instalar temporizador en accionamiento del motor (si no dispone de ello).  |
| 8 Posibilitar que se pueda controlar fácilmente, desde el cuarto de máquinas, si la cabina se encuentra en una zona de desenclavamiento.  | Al menos marcado de los cables.  |
| 9 En los motores alimentados directamente por una red, la llegada de energía deberá ser cortada por dos contactores independientes.   | Se encuentra ya implantado en la C.A.P.V.  |
| 10 Instalar en cabina un sistema de comunicación bidireccional que permita una comunicación permanente con un servicio de intervención rápida en edificios de ocupación diaria temporal (edificios públicos o de oficinas), estacional o viviendas de baja ocupación. | Sistema telefónico en cabina.<br>Se considera baja ocupación si el edificio tiene menos de 5 viviendas.  |
| 11 Instalar una barandilla en el techo de la cabina cuando el espacio libre entre el borde del techo y la pared del hueco sea mayor de 30 cm.   | Se encuentra ya implantado en la C.A.P.V.<br>Solo quedan los que tienen entre 30 y 35 cm.  |

**- Para ascensores instalados entre 1992 y el 1-7-1999 (con la ITC AEM-1):**

| Nuevas medidas a adoptar  | Observaciones  |
|---|--|
| 10 Instalar en cabina un sistema de comunicación bidireccional que permita una comunicación permanente con un servicio de intervención rápida en edificios de ocupación diaria temporal (edificios públicos o de oficinas), estacional o viviendas de baja ocupación. | Sistema telefónico en cabina.<br>(En general se considera baja ocupación si el edificio tiene menos de 5 viviendas). |
| 11 Instalar una barandilla en el techo de la cabina cuando el espacio libre entre el borde del techo y la pared del hueco sea mayor de 30 cm.   | Se encuentra ya implantado en la C.A.P.V.<br>Solo quedan los que tienen entre 30 y 35 cm.                            |

  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 INDUSTRIA, MERKATARITZA  
 ETA TURISMO SAILA  
 DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA  
 COMERCIO Y TURISMO

Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 2005



Fdo: Ruben Mendiola Erkoreka  
DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN DE INDUSTRIA Y MINAS